

# OROIMEN HISTORIKORAKO

# BELAUNALDIEN ARTEKO TAILERRAK

Hernani, 2017.12.12, 18

# OROIMEN HISTORIKORAKO BELAUNALDIEN ARTEKO TAILERRAK

   

## Aurrekariak

Eusko Ikaskuntzak eta Hernaniko Udalak elkarlanean aritu dira beste behin, oroimen historikoa era ezberdinean landu nahian. Oraingoan, belaunaldiartekotasuna bilatuz, Sandiusterrin elkartu dira abenduaren 12an eta 18an, Eguneko Zentroko nagusi talde bat eta Institutuko  DBHko laugarren mailako 15 ikasle.

## Lehenengo saioa: Sandiusterri, 2017.12.12

Lehenengo saio honetan, Txuso Gomez,  Udal artxibariak, Hernaniko historiaren azken ehun urteetako ibilbideaz hitz egin zuen; ondoren, *Gerrako Umeen Bilobak* dokumentalaren laburpen bat ikusi ahal izan zuten parte hartzaileek eta gero, enpatia lantzeko talde dinamika bat burutu zen.

Hain zuzen ere, *Personas* deituriko dinamika mota landu zen, non nagusiei nerabe konkretu batzuen errolak hartzeko eskatu zitzaien eta nerabeei ordea, nagusi prototipo batzuena. Ondoren, adibide batzuk agertzen dira.

## Dominica

- Nacida en 1933 (84 años)
- Tras un largo periplo de huida, acabó con su madre, tía y hermanas en Avignon (Francia)
- Tras regresar y afrontar las penurias de la posguerra, su padre fue encarcelado en Ondarreta
- La mala salud de su madre hizo que tuviera que hacerse cargo del sustento de la familia y de ir a llevar diariamente comida a su padre y otros vecinos a la cárcel
- *"Aun no se cómo lo hacía pero siendo todavía adolescente trabajaba, iba andando a donde el aita, porque el tranvía costaba dinero, y aun sacaba tiempo para coser y hacer recados a los vecinos…"*



## Naroa (14)

- Su hermana pequeña padece una grave enfermedad degenerativa
- Sufre mucho al ver a su hermana así, pero también al ver como sus padres gastan todas sus energías en ella
- Se siente desplazada y abandonada, como si a nadie le importara porque solo ven a su hermana enferma
- *"Maia nos necesita, Maia lo pasa muy mal… y yo ¿qué? si, ya se me se toda la teoría; y a mi también me preocupa y me da pena… es mi hermana y le quiero, pero parece que a mi todo me va bien, que no necesito nada ni a nadie…si no fuera por mis amigas… "*



## Egoitz (16)

- Sus padres se divorciaron cuando él era pequeño y ambos tienen nuevas parejas
- Vive con su padre, su pareja y sus dos "nuevas hermanas": no las aguanta…
- A su madre la ve solo en vacaciones porque vive en Barcelona
- *"Me siento como un extraño en mi propia casa… mi padre no hace caso más que a su mujer y a las dos petardas…yo, como si no existiera… y encima las niñatas estas son inaguantables, todo el día cogiendo y tocando mis cosas… me dan ganas de irme a Barcelona con mi madre, pero su marido tampoco es que me caiga muy bien…"*



## Justo

- Nacido en 1938 (79 años)
- Familia modesta de León
- Vino muy joven a Hernani en busca de trabajo
- Aunque tuvo cuatro hijos, todos viven lejos y, desde que enviudó, vive en una residencia
- *"Lo que peor llevó es la soledad… se que a mis hijos les importo, pero todos viven fuera, lejos y no se pueden ocupar de mi… mi mujer era el alma de la casa, yo era muy inútil para las cosas de la casa y cuando ella murió hace tres años… la casa se me hundía y preferí, por lo menos, estar en compañía de otras personas como yo. Pero no es lo mismo…"*



## Ondorioak

Hasieratik giroa aparta izan zen. Nerabeen kasuan, talde-lana hasi aurretik jarritako dokumentalaren zatiaren ondorioz, askok hunkituak agertzen ziren.

Gazteei ez zitzaien gehiegi kostatu adinekoen “oinetakoak” janztea eta berehala ekin zioten euren sentipenez jabetzeari. Nagusiei, normala denez, gehiago kostatu zitzaien dinamika ulertzea, baina gazteen laguntzaz eta poliki-poliki, nerabeen paperak bereganatzea lortu zuten, batzuek behintzat. Talde batzuetan eztabaida politak sortu ziren adin eta bizitza trukaketa hauen ondorioz.

Bestetan, bestearen papera hartu ordez, *Personas* fitxa bakoitzean azaltzen ziren bizitza eta arazoei gomendioak eta, askotan, kritikak ere egin zitzaizkien. Baina ariketaren helburuetako bat elkarrizketa sortzea eta esperientziak trukatzea zen ezkero, lasai utzi zitzaien hizketan, dinamikatik aldendu baziren ere.



Bai Sandiusterriko taldea eta hango teknikariak eta zaintzaileak, bai eta Institutuko ikasleak eta irakasleak ere pozik amaitu zuten saioa, hurrengo asteko tailerraren zai gelditzen ziren bitartean.

Azken finean, lehenengo saio honen helburuak, talde giroa sortzea, elkar ezagutzea eta enpatia lantzen hastea, guztiz bete ziren.



## Bigarren saioa: Sandiusterri, 2017.12.18






Bigarren saio honetan, partaideak hasieratik hiru lan-taldeetan banatu ziren, guztietan nerabe eta nagusien arteko oreka bilatu zelarik.

Talde bakoitzak gai jakin baten inguruan egin zuen lan: Gazteria, Emakumea eta Hernani izan ziren, hain zuzen ere, jorratutako gaiak. Ikuspegi historikoa landu zen batik bat, nagusiek euren gaztetako ikuspuntua eta bilakaera azalduz eta nerabeek, ordea, gaur egunekoarekin konparazioa egin eta etorkizuneko begirada partekatu zuten.

Une oro elkarrizketa, errespetua eta jarrera irekia bultzatu ziren, guztien partaidetza bermatu eta iritzi ezberdinak entzun eta onartzeko asmoarekin.

Talde bakoitzean hausnartutakoaren emaitzak, hiru atal kronologikoetan sailkatu ditugu horien ulermena hobeagoa izango delakoan: 1940 (hau da, nagusiek, gutxi gorabehera, egungo nerabeen adina izan zutenean), 2017 (egungo egoera, alegia) eta 2040 (etorkizunera begira).

Hurrengo orrialdeetan, emaitzak era horretan sailkatuak ikus daitezke.

Oharra: dinamikan erabilitako hizkuntza errespetatu da.

# 1. TALDEA: HERNANI ETA GAZTERIA

| 1940 | 2017 | 2040 |
|---|---|---|
| *Posguerra, hambre, penurias…<br>*Algunos afortunados iban a la escuela, pero luego volvían a casa para ayudar a sus madres, o en los caseríos…<br>*A esa edad (14-15) muchos empezaban a trabajar<br>*Cuando la madre se enfermaba, se abandonaba el colegio… o no se llegaba a ir nunca.<br>*Familias numerosas, pero, en muchas ocasiones sin padre (fallecido en la guerra o preso…).<br>*El euskera estaba prohibido y se penaba con multa su utilización… (muchos no aprendieron).<br>* Sus únicos sueños eran vivir, comer y poder ir a la escuela para encontrar un buen trabajo.<br>*La única diversión era bailar en Los Tilos y los sanjuanes.<br>*También iban a la sidrería, en temporada.<br>*También iban a robar manzanas.<br>*Los domingos a las 6 de la tarde tocaba la Banda, pero para las 11, todos en la cama.<br>*En casa, mandaba la madre. | *Los jóvenes de hoy se sienten “obligados” a elegir estudios que les garanticen el futuro, no se tienen en cuenta sus gustos o inclinaciones.<br>*Muchos condicionantes para ser aceptados por la sociedad.<br>*La opciones de ocio son caras (bares, conciertos…). | *Los jóvenes tendrán todas las opciones de formación que quieran en un marco geográfico cercano.<br>*Tendrán opciones de trabajo sin necesidad de moverse de Hernani.<br>*Hernani contará con una variada oferta de ocio y deporte para los jóvenes, complementando a la de las zonas cercanas. |

| | | |
|---|---|---|

## 2 TALDEA: HERNANI ETA EMAKUMEA

| 1940 | 2017 | 2040 |
|---|---|---|
| *Sociedad muy machista<br>*Las mujeres dejaban de trabajar al casarse (pasaban a ser dependientes del marido).<br>*Se casaban mucho más jóvenes.<br>*Una vez casadas, trabajaban en casa.<br>*Diferencias salariales muy grandes entre hombres y mujeres.<br>*Las mujeres tenían más obligaciones y menos libertad que los hombres<br>*En algunas actividades de ocio (bailes...) las mujeres no pagaban para asegurar su presencia y atraer así a los hombres.<br>*Las mujeres tenían que volver más pronto a casa.<br>*Si se quedaban viudas, tenían que trabajar fuera.<br>*En casa, mandaba la madre. | *La sociedad sigue siendo machista, aunque haya habido avances significativos.<br>*Ahora la mujer se ha incorporado plenamente al mercado laboral.<br>*Sigue existiendo una enorme brecha salarial entre hombres y mujeres.<br>*Se ha avanzado mucho en derechos pero queda mucho por hacer. | *Las mujeres y los hombres cobrarán lo mismo por el mismo trabajo.<br>*Las mujeres y los hombres tendrán las mismas oportunidades (y deberes).<br>*Igualdad de visibilidad en el deporte. |

## 3 TALDEA: HERNANI HERRIA

| 1940 | 2017 | 2040 |
|---|---|---|
| *Era pequeño. Aparte de la calle Mayor y la Urumea, poco más… caseríos en las afueras.<br>*No había ambulatorio, se iba a la consulta del médico en su casa (o venía él a la tuya).<br>*El baile de los Tilos era muy famoso y venía gente de los pueblos de alrededor. Se hacían meriendas también.<br>*Muy buen ambiente entre la gente.<br>*Había tres cines: Zintzotasuna, Aitor e Irazusta.<br>*Tiendas y comercio pequeño: la carbonería, Oa, panaderías de Peña y Zabala, pescaderías (2), farmacia de la calle Mayor, el bar Josemari…<br>*Fábricas: Carrero, Onena, Curtidos, Zikuñaga, Ladrillos…<br>*Escuelas Viteri y las monjas.<br>*El Parador de San Antonio tenía mucha fama, para banquetes, bodas…<br>*Había un tranvía que comunicaba con Donostia (pocos coches)<br>*No se hablaba el euskera (prohibido) | *El pueblo ha crecido mucho en extensión.<br>*Hay muchos coches.<br>*Está todo muy sucio.<br>*Se han cerrado muchas fábricas, pero hay empresas nuevas.<br>*Las fiestas han cambiado mucho: en época de sidrerías hay demasiada gente, mucho ruido, suciedad... parece que se vive más de noche que de día.<br>*Han hecho muchas casas.<br>* Se escucha mucho más euskera, casi todos los jóvenes lo saben aunque muchos no lo utilicen.<br>* Hay tiendas y servicios de todo tipo: se ha ganado en comodidad, transporte… | *Será un pueblo muy bonito y cuidado.<br>*Las comunicaciones con otros pueblos serán rápidas, fáciles, cómodas y no contaminantes (sostenibles).<br>* |

# ONDORIOAK

Esan dezakegu hasieratik planteatzen ziren helburuak, hau da, memoria historikoaren lanketa belaunaldi ezberdinen artean egitea eta partaideek bestearenganako enpatia lortzea, guztiz bete direla.

Horrelako esperientzietan, emaitza teorikoak lortzea baino, prozesua bera, ekimena bera da garrantzia duena. Adinez nagusiak direnak nerabeekin kalitatezko denbora partekatzea da esperientzi hau eredugarria bihurtzen duena.

Izan ere, horrelako tailerrak maizago egin beharko liratekela uste dugu. Eta Hernaniko eredua, beste udaletara zabaldu.

Horrela izango delakoan gaude…

Bideoa ikusteko, sakatu hemen